



**Arartekoaren 2015AS-958-15 Ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez, Lanbideren "irizpideen dokumentua" izenekoaren edukia argitaratzeko beharrari dagokion ofiziozko jarduna amaitu du.**

### Aurrekariak

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketaren ardura hartu zuenetik, aldizka "irizpideen dokumentua" deitutakoa onartzen ari da, barne zirkular bat zeinaren bidez erakunde autonomo honen bulego ezberdinei diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketaren gida mota bat eman zaien. Irizpideen dokumentu horren azken eguneratzea 2014ko abenduan izan zen.

Dokumentu hau eztabaidagarria da ondoren azalduko ditugun arrazoiengatik, batez ere Lanbidek publikoa egitera ukatu izanarekin, bai Lanbideko zerbitzuetako erabiltzaileei dagokienez baita eragile sozial ezberdinei dagokienez ere (hirugarren sektoreko entitateak eta oinarrizko gizarte zerbitzuak), zeinentzat zirkular honen edukia ezagutzea oinarrizkoa den euren funtzioak aurrera eraman ahal izateko.

Arartekoak arazo hauek ezagutzen zituen, bai Lanbideren irizpideen dokumentua hizpide zuen kexa-espediteren bat izapidetzeagatik (bereziki 653/2015/QC kexa-espeditentea), baita erakunde autonomo honek egindako informazio eskari ezberdinei jasotako erantzunengatik zirkular honen garrantzi handia egiaztatzeagatik ere, ohikoa baita erantzun horiek irizpideen dokumentuaren edukiarri buruz aritzea eta ez diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzen duen araudiari buruz (oinarrian, diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legea, 4/2011 Legeak, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuak eta etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuak aldatutakoa).

Hori izan zen ofiziozko espediente hau irekitzeko arrazoia, Lanbideri diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketa irizpideen dokumentuaren eraginari eta kontzeptu aldaketa batzuk sartzearen egokitasunari buruzko gure iritzia emateko helburuz.

Hori dela eta, ekainaren 11n Eusko Jaurlaritzaren parte diren hainbat erakunderen arduradunei idatzi bat bidali zitzaion (Enplegu eta Gizarte Politiken kontseilaritza, Lanbideko Zuzendaritza Orokorra eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza) gai honen inguruko gure ardura adierazteko helburuz, eta Lanbidek gure ustez eztabaida handiena sortzen ari zituzten gaiak erantzuteko, hala nola:





- Norbanako gisa pertsona batzuk, udal gizarte zerbitzuek eta gizarte erakundeek helarazitako ardura, irizpideen dokumentua ez argitaratzeak sorrarazitako gardentasun faltagatik.
- Dokumentuaren edukia nolabait zabaltzeko aukera.
- 18/2008 Legearen araudi garapena emateko beharra 4/2011 Legeak sartutako berrikuntzen ostean (2/2010 eta 147/2010 dekretuen eguneratzea).
- Irizpideen dokumentua Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren kontseilariaren agindu bat bezala konfiguratzeko aukera.

Hainbat kudeaketa egin ostean, Lanbideri errekerimendu bat bidaltzea barne hartzen zutenak, ebazpen hau egiteko nahikoa informazio jaso dugu.

### Gogoetak

Arartekoak ekainaren 11n diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketarekin lotutako Eusko Jaurlaritzaren erakunde ezberdinei bidalitako idatzia oinarritu zen Arartekoaren ustez diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko irizpideen dokumentu bezala ezagututako barne zirkularraren erabilerari lotutako arazoak zirela, ondoren laburbilduko ditugunak.

1. Lanbideri adierazi genion zirkular honek ez zituela diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzen duen erregimenarekin lotuta sor daitezkeen zalantzekin interpretazio irizpideak bakarrik, baizik eta araudiaren laburpen batean osatu ahal zela, gaur egun Lanbideko langileek diru-sarrerak bermatzeko errenta espedienteak kudeatzeko erabilitako instrumentu nagusia, askotan bakarra, dela.

Horrek dakarrena da Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketan aurrera eramaten dituen jardunen oinarria irizpideen dokumentua izatea, garrantzi handia hartu duen dokumentua bere gaur egungo bi funtzioak direla eta:





Alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubidearen etetea sor dezaketen arrazoiak zehazten dituelako, haren iraupena, irizpide zehatzak betetzen direla egiaztatzeko zein dokumentu bide onartzen diren edota diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa dagokion kopurua kalkulatzeko zenbatu beharreko errendimenduak, adibidez.

Bestalde, irizpideen dokumentuak 147/2010 Dekretuaren (2/2010 ere) edukia 4/2011 Legeak sartutako 18/2008 Legearen aldaketara nolabait egokitzeko balio izan du. Gai honek larriki arduratzen du erakunde hau segurtasun juridiko faltari eta ezaguna den araudi bat ez egoteak beste eragile publiko eta pribatuen lanerako dakarren zailtasunei lotuta.

Arartekoak Lanbideren bulegoetara egindako hainbat bisiten ostean jakin duenaren arabera, orokorrean diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzen duten pertsonak ez dute araudia duten testurik erabiltzen (18/2008 Legea, 147/2010 Dekretua, 2/2010 Dekretua), baizik eta irizpideen dokumentura jotzen dute diru-sarrerak bermatzeko errentari dagozkion kontu guztiak argitzeko. Horrela, baieztatu daiteke aipatutako barne zirkularra Lanbideren bulegoetan honen ordezkari erabiltzen den araudiaren laburpen bat litzatekeela.

2. Arartekoaren beste arduretako bat, gorago aipatu dugun moduan, gizarte eragile ezberdinek erakunde honi helarazitako kontakizunari zegokiona zen, askotan Lanbideri irizpideen dokumentuaren kopia emateko eskatu diotenak edukia ezagutzeko eta modu horretan diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren barruko zerbitzu ezberdinen erabiltzaileei zehatzago informatu ahal izateko, baina Lanbidek ez die eman. Gogoratu behar dugu sistema hori ez dagoela prestazio ekonomikoez bakarrik osatua, baita ere 18/2008 Legearen 7. artikulua zehaztutako terminoetan gizarteratzeari eta lanari zuzendutako instrumentuez ere. *“Esku hartzeko neurri espezifikoak. Gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentroak izan daitezke, bereziki gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek antolatutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratzeko hitzarmenean aplika daitezkeenak”.*

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko erabilitako irizpideak dituen dokumentuaren hedapen faltak sortutako zailtasunen gaineko gogoeta egiteko beharrezkin lotutako gure ardura helarazi genuen, erakunde autonomo honen erabakietan oinarritako dokumentua delako. Horregatik adierazi genion Lanbideri gure ustez zailtasun hauek publikitate nahikoa ematen duen araudi xedapena egiteko egokitasuna baloratzea





beharrezkoa egiten dutela, babesgabetasun egoerak sortzea ekiditeko eta behar dutenek eragile publiko zein pribatuen orientazioa jaso ahal izatea baimentzeko.

Adierazi genuen gure ustez publizitate hori helburu horiek lortzeko beharrezkoa dela, sistema hau osatzen duten elementu ezberdinek modu koordinatuan jardun ahal izateko, baita ofiziozko jardun honen helburu den dokumentuaren edukiaren hedapena administrazio ororen jarduna zuzendu behar duen gardentasun printzipioa eta gobernu onaren jardunen arabera dela, Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua jasotzen duen bezala.

Lanbideri administrazio jardunen printzipio zehatzak berrikusteko beharrezkin lotutako hainbat agindu gogorarazi genizkion, gure ustez esku artean dugun gaiari ezarri ahal zaizkion printzipioak.

- 30/1992 Legearen 35g) artikulua ezartzen duenez, herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan honetarako eskubidea dute: (...) *"argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jarduna edo eskabideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko"*. Era berean, artikulua berdinaren h) atalak, Gardentasunari, Informazio Publikoari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legeak aldatutakoa, honako eskubidea aitortzen du: *"informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak lortzea"*.
- 208/1996 Errege Dekretuaren 2. artikulua, zeinaren bidez administrazio informazio zerbitzuak eta herritarrentzako arreta erregulatzen diren, datu mota hauek halaberrez hedatu beharreko informazio orokor gisa aipatzean argia da.

*"1.- Identifikazioari, helburuei, eskumenari, egiturari, funtzionamenduari eta organismo eta administrazio unitateei dagokien administrazio informazioa da; xedapenek herritarrek egin nahi dituzten proiektu, jardun edo eskariei ezarritako irizpide juridiko edo teknikoari dagokiena; prozeduren izapidetzeari, zerbitzu publikoari eta prestazioari dagokiena, baita herri-administrazioekiko harremanetan ezagutzeko beharra duten beste edozein daturi, orokorrean edo jardura eremuren batean. 2.- Informazio orokorra herritarrei emango zaie halaberrez, horretarako inolako legitimazioaren egiaztapenik eskatu gabe. 3.- Hedapen handiagoa*





*beharrezkoa denean, izaera orokorreko informazioa hura ezagutzeko interesa duten gizarte talde edo erakundeei eskaini beharko zaie”.*

- Azkenik eta orokorrean, administrazio jardunek ordenamendu juridikoan ezarritakoari egokitu behar zaizkio xedapen orokor batean ezarritako agindurik urratu gabe (aipatutako 30/1992 Legearen 51, 52 eta 53. artikulua).
3. Amaitu genuen esanez, Arartekoaren ustez beharrezkoa litzatekeela 18/2008 Legea aldatu zuen 4/2011 Legearen araudi garapena aurrera eramatea, haren Azken Xedapena betetz<sup>2</sup>, Lanbideren jardunak gardentasuna hobetzeko, modu horretan irizpideen dokumentura jo behar ez izateko.

Subsidiarioki, uste genuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazio ekonomikoen eskubidean eragina duten administrazio jardunen produkzioarako oinarri diren irizpideei beharrezko hedapena emateko modu egokia izan daitekeela, 147/2010 Dekretua garatuko duen Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren Kontseilariaren Agindu gisa konfiguratzea. Agindu hori, argitaratua izan beharko litzateke (jarduteko modu hau etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionean ere ezar daiteke, haren 2/2010 Dekretua ere garatu gabe dagoelarik).

Modu honetan ez litzateke diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketan jarraitutako irizpideen hedapena aginduaren edo aginduen argitaratzearen bidez bakarrik lortuko, baizik eta hauek araudi testu batean positibatuta garatuko lirateke. Horrek, gainera, segurtasun juridikoaren hazkuntza suposatuko luke.

Gure idatziak Lanbideren zuzendari orokorraren erantzuna jaso zuen erakunde honen erregistroan abuztuaren 17an eta azaroaren 23an sartu ziren bi idatzien bidez. Erantzun horrekin zuzendaritza orokor horrek gure gogoetei buruz egindako balorazioa helarazi zigun. Laburbilduz, Lanbideak honako iritzia helarazi zigun.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko oinarritzko instrumentua bihurtzeagatik barne zirkularrak hartu duen garrantziari dagokionez egindako

---

<sup>2</sup> Lege hau onartu eta hurrengo hamabi hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak hura garatu eta ezartzeko beharrezko xedapen guztiak eman beharko ditu”.



behaketaren ganean, honakoa jakinarazi digute: *“Irizpideen dokumentua” deritzana ez dela DBEren arlo honetan indarrean dagoen araudiaren sintesi bat; ez da Lanbideko enplegatuek DBEko espedienteak kudeatzeko erabiltzen duten tresna nagusia, eta askoz gutxiago bakarra. . Adierazi digute dokumentu honek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren araudia interpretatzeko eta ezartzeko beharrezko homogeneotasuna lortzeko gida garrantzitsua dela, Eremu honetan lan egiten duten herritarren eta erakundeen segurtasun juridikoa sendotze aldera, non adierazten baitira Herri Administrazio ororen jardunaren goiburua izan behar duten gobernu oneko praktikak eta gardentasun printzipioa. . Aipatu dute ere dokumentua Lanbideko bulego ezberdinetako irizpideen arteko homogeneotasuna lortzeko balio duela. Ulergarria da ere erakunde honetako langileek arlo honetako araudi konplexua beren egoera zehatzera nola aplikatzen den modu ulergarrian adierazteko –legea, batzuetan, maila altuko teknizismo juridikoekin idatzita baitago- esandako “Irizpideen dokumentua” erabiltzen dute, eta maiz, zenbait kasutan.*

Lanbideren irizpideen aldizkako positibizazioari dagokionez, 4/2011 Legeak aldatutako 18/2010 Legeak araudiaren arabera garatzeko beharrarekin lotutako legegilearen agindua betez, honakoa jakinarazi digute: *“haren araudi garapena abiaraziko da, gaur egun indarrean dauden dekretuak aldatuz, egiazki abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bertsio originalaren garapena direnak, eta beraz, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak sartutako berrikuntzei egokitzen ez zaizkionak”*. Jakinarazi digute gaur egungo irizpideen dokumentuak dekretu exekutiboen aipatutako berrikuntzak eguneratzeko oinarria izan daitekeela.

Lanbide Arartekoaren iritziarekin bat dator, gaur egungo edukia aldatu ondoren ebazpen honek aipatutako dokumentua positibatuko dela esatean. Horretarako, honakoa idazteko konpromisoa helarazi zaigu: *Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren Aginduz edo Lanbideko zuzendari nagusiaren Ebazpenez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Argitaratu behar litzatekeela, guztiek ezagutu dezaten, bai Gizarteratzeko Euskal Sistemaren balizko erabiltzaileek, bai prestazioen onuradunek edota Sistema horretan interesa duen beste nornahik.*

Horretarako, irizpideen dokumentua hobetu eta zuzentzeko helburuz, baita prestazioaren kudeaketan erabilitako aplikazio informatikoak ere, kontuan hartu behar da Lanbideko langileek diru-sarrerak bermatzeko errenta





kudeatu duten urteetan pilatutako esperientzia eta irizpideen dokumentua liskarren oinarri izan den ebazpen judizialen edukia ere.

Jakinarazi digute prozesu honen amaierarako data zehaztu ezin bada ere horretan dihardutela eta aginduaren edo ebazpenaren argitaratzea, irizpideak positibatu eta dekretuak garatuko dituen, aurretiko lan hau amaitu eta hilabetera emango dela.

Jarrera hau arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiken kontseilariarekin duela gutxi izandako bilera batean berretsi da.

### Ondorioak

Lanbidek positibazioarekin eta ondoriozko irizpideen argitaratzearekin hartutako konpromisoa oso positiboki baloratzen dugu, adierazi dugun moduan irizpideen dokumentuak hartu duen papera diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketaren eskumena hartzean eman zen testuinguru zailaren barruan ulertu daiteke, hasiera bateko arazoan erantzun praktiko gisa, baina arazo horiek gainditu ondoren, egiaztatu da ez dela instrumentu egokia, adierazitako arrazoiengatik.

Espediente honetan gure jarduna amaitutzat joko dugu, Lanbidek adierazitako hobekuntzak sartu arte.

